CONSULTORIO DE INGLÉS
EXPERTOS RESPONDEN A TUS DUDAS

AL DÍA LOCAL

# Tesi onenentzako Koldo Mitxelena sariak eman dituzte

J.M. Makazagaren 'Elgoibarko ahozko euskara' argitaratu dute Euskaltzaindia eta EHUk

**05.04.11 - 02:53 - DV | DONOSTIA.**

Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak Euskarazko Tesien II. Koldo Mitxelena sariak banatu zituzten atzo. Irabazleek oroigarria, diploma eta 2.000 euro jaso dituzte.

Zientzia Esperimentalen jakin-tza-arloan, Koldo Garciaren tesi hau gertatu da garaile: 'Erretrobirus endogenoen detekzioa eta karakterizazioa behietan eta beste hainbat mamaliotan'.

Ikasketa Teknikoen jakintza-arloan Maite Oronozen tesi hau saritu dute: 'Euskarazko errore sintaktikoak detektatzeko eta zuzentzeko baliabideen garapena: datak, postposizio-lokuzioak eta komunztadura'. Osasun Zientzien jakintza-arloan, berriz, Jaime Zuberoren 'Goi mailako futbolari gazteen ezaugarri antropometriko eta fisiologikoen garrantzia aukeratze-prozesuan'.

Gizarte Zientzien eta Zientzia Juridikoen jakintza-arloan, J. Inazio Markoren 'Hizkuntza-eraldaketa organizazioetan: Esperientzia eta modelizazioa. dinamizazio soziolinguistikoa gizarte pedagogiaren baitan'. Eta Giza Zientzian jakintza-arloan, Idurre Alonsoren 'Literaturaren irakaskuntza Hego Euskal Herriko batxilergoan, eduki kontzeptualetatik gaitasun komunikatiboetarako bidean'.

Bestalde, Jesus Mari Makazagaren 'Elgoibarko ahozko euskara' aurkeztu zen atzo Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan. Liburuak Akademiaren Iker bildumaren 25. zenbakia darama, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Akademiaren arteko hitzarmenari esker argitaratu da.

Jesus Mari Makazaga UPV/EHUko Euskara Zerbitzuaren zuzendaria da, euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiko Gramatika ba-tzordeko idazkari. Elgoibarko ahozko euskara, 2009 urtean Makazagak aurkeztu zuen doktore tesiaren emaitza nagusia da. Tesiaren zuzendaria Pello Salaburu euskaltzain osoa izan zen.

Makazagak hizkuntzaren maila guztietan ikertu du Elgoibarko hizkera. Horretarako, Elgoibarko eta inguruko herrietako adineko berri-emaile batzuei grabatutako testuak erabili ditu.

## K. MITXELENA SARIA

**Sorrera:** 2008an sortu zuten sari hau Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak.

**Maiztasuna:** Bi urtez behin dei-tzen da saria.

**Aurten:** Edizio honetan, EHUn 2008, 2009 eta 2010ean euskaraz defendatutako tesiak hartu dira kontuan.

## TAGS RELACIONADOS

tesi, onenentzako, koldo, mitxelena, sariak, eman, dituzte

Iniciar sesión

Escribir un comentario

**0 comentarios** Suscribirse RSS

Publicidad

PAN

diariovasco.com

© Copyright DIARIOVASCO.COM Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.
Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 49, Folio 118, Hoja nº 2.900, Inscripción 1ª C.I.F.: A-20004073
Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018
Correo electrónico de contacto contactanos@diariovasco.com
Copyright © Digital Vasca S.L. , San Sebastián. , 2008. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.) , y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:
Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización, total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.

Contactar | Aviso legal | Condiciones de uso | Política de privacidad | Política de Cookies